

'Laosko paperen' faltsifikazioan parte hartu izana ukatu egin du Paesak

Dioenez, ez zuen esku hartu Luis Roldan espainiar polizia entregatzeko operazioan

Atzo Maria Tardon epailearen aurrean agertu zen Francisco Paesa, 'Laosko paperen' faltsifikazioa zela-eta diplomatiko ohiak izan zuen partehartzeari buruzko galderei erantzuteko. Paesak erabat ukatu zuen paperen faltsifikazioan parte hartu izana, eta Laosko edo Espainiako agintariei Roldan topatzen ez ziela lagundu erantsi zuen.

MADRIL

'Laosko paperen' faltsifikazioan inolako eskuhartzerik ez zuela izan ziurtatu zion Maria Tardon epaileari kasu horretan inputatu gisa ageri den Francisco Paesa diplomatiko ohiak. Luis Roldan Espainiako Poliziari entregatzeko operazioan ere berak ez zuela parte hartu erantsi zuen Paesak. Diplomatiko ohiak bi ordu eta zerbait gehiago egon zen atzo deklarazioa egiten, Madrillgo instrukzio epailearen aurrean, eta horretan ukatu egin zuen Laosko edo Espainiako agintariekin inolako harremanik izana Luis Roldanen bilaketa errazteko. Hala eta guztiz ere, Roldani



Francisco Paesa, hainbat kasu judizialean nahastua.

EFE

entregatzeari buruzko aholkuak eman zizkiola onartu zuen Paesak, «baina ez Gobernuaren ize-nean, haren atxilotzea errazteko baizik».

Paesak onartu egin zuen Parisen Roldanen bila ari ziren bi poliziarekin hitz egin zuela, eta baita Roldanekin berarekin telefonoz hitz egin zuela, Goardia Zibileko zuzendari ohi atxilotua

izan baino egun batzuk lehenago, Laosen gorderik zela.

«1.200 MILIOI EKARTZEN LAGUNDU NION» Herenegun, berriz, Luis Roldanen diru eragiketaren batean izan zuen partehartzeaz deklaratu behar izan zuen Francisco Paesak, 'Roldan kasuko' ordezko epailearen aurrean.

Paesaren arabera, hiru bider mintzatu zen Roldanekin telefonoz, hura Laosen gordeta zelarik. Roldanek bere burua Espainian entregatzeko asmoa zuela azaldu ei zion Paesari, eta elkarrizketa horietako batean «hitzartutako» entregatze paktua bazuela esan zion, beti ere Paesaren deklarazioaren arabera.

'Roldan kasuan' inputatu bezala deklaratu zuen Paesak herenegun Mercedes del Molino epailearen aurrean, eta diplomatiko ohiak onartu egin zuen Goardia Zibileko zuzendari ohiaren diru operazio batean parte hartu zuela. Paesak azaldu zuenez, Roldanek Suitzako banku batean zituen 1.200 milioi pezeta Espainiara helaraztea izan zen bere zeregina.

1994ko urtarrilean Roldan dirua eskuratzen saiatu zelarik, arazoak izan zituen Suitzako bankuak nahikoa likidezia ez zuela-eta. Operazio horretan Costa Curta bitartekariak eta Jacques Pierre Berle finantzariak ere parte hartu zutela erantsi zuen Paesak, iturri judizialen arabera. Paesak jarri omen zuen Roldan Berleren diru konpainiarekin harremanetan, eta honek lortu zuen azkenik Roldanen nahia betetzea; 1.200 milioiak Espainiara helaraztea, alegia.

LABURREAN

SOTOren abokatuek fidantza ordaindu zuten atzo

Carlos Sotoren abokatuek atzo ordaindu zuten PSV etxe kooperatibako burua kartzelatik irteko epaileak ezarri zuen 30 milioi pezetako fidantza. Ehun lagun baino gehiagok jarri dute fidantza ordaintzeko dirua, Marino Turiel abokatuak nabarmendu zuenez, «Carlos Sotosek ez baitzuen Moreiras epaileak ezarritako fidantza ordaintzeko nahikoa diru» ●

CESIDeko langileen estatutua onartu du Ministro Kontseiluak

CESIDeko zuzendariaren agintaritzan bost urtera mugatu duen estatutu berria onartu zuen atzo Espainiako Ministro Kontseiluak. Estatutu berriak diziplina eta inkompatibilitate erregimen «zorrotzak» ditu. Defentsa ministroaren esku uzten du estatutu berriak «pertsonalaren kopurua eta ezaugarriak zehaztea, aukeratuak izendatzea, hasierako destinoak erabakitzea eta zerbitzutik baztertzeko zigor diziplinarioak ezartzea» ●

Algeriako erakunde integrista ezezagun batek hartu du bere gain Parisko metroko atentatua

ALLANDE SOKARROS / BAIONA

Atzo arte ezagutzen ez zen Algeriako Jihad Islamikoa erakundeak hartu du bere gain Parisko metroan iragan asteartean izandako atentatua, France Inter irratiari egunikoa deian. Asteazken goizaldean jasotako deia atzo zabaldu zuen France Inter-ek. Magrebiar azentua zuen ezezagun batek frantsesek zioenez,

«atentatuaren egilea onik itzuli da gure asilo herrira, Alemaniara». Argeliako Jihad Islamikoa erakundeko ustezko kideak mehatxu egin zion Frantziako Gobernuari, «Algeriako lurraldeetan erortzen den integrista bakoitzeke Frantziako frantses bat hilko» dela ohartaraziz.

Terrorismoaren aurkako agintari frantsesek azaldu duteenez, dei horrek ez du sinesgarri-

tasun handirik, eta ustezko erakundea Algerian erabat ezezaguna dela azpimarratu dute. Hala ere, atentatua erabili zuten lehengailua hiru kiloko gas bonbona baten barruan zela baieztatu dute. Eta zartagailu mota hau Talde Islamiko Armatuak (GIA) Algerian atentatuak egiteko erabili ohi duenaren antzekoa denez, 'islamisten pistari' sinesgarritasun handiagoa ematen dio-

te Poliziako eta Justiziako iturriek.


Udako oporretako joan-etorrietatik jende kopuru handiak higitzen hasi zirelarik atzo, agintariek segurtasun neurri zorrotzak jarri dituzte indarrean asmatuamainera honetarako.

Atzo bertan, Parisko Burtsa jendez hustu behar izan zuten, jasotako bomba mehatxu bat zela eta.

AZNAR: «Logika politikorik ez du CiUren babesak»

Jose Maria Aznar PPko presidentek atzo esan zuenez, CiU Kongresuan Felipe Gonzalez eskaini zion babesak «ez du inolako logika politikorik. Aznarrek erantsi zuenez, babes horren arrazoiak ez ditu ulertzen, «eta ez dakit kataluniarrek zergatik ezkututzen dituzten babes horren arrazoiak». Gonzalezen exekutiboaren egoera «gero eta ahulagoa» dela erantsi zuen ●

LANBROA



kafetegia
edaritegia


konstituzio
plaza 5
ff.: 42 19 58
DONOSTIA

BEREZITASUNAK:
DIRU KUTXAK
ZERRAILAK
GILTZEN FABRIKAZIOA



EJABRETTA

USANDIZAGA, 16 GROS (Donostia) MIGUEL IMAZ, 6
Tel.: 27.18.14 / 29.16.81



comercial
mugaire c.b.

ERREFORMAK
Gremioak zuzendu eta koordinatzea
Tel.: 52.83.17

- Dekorazioa eta obra zuzentzea
- Zurgindegia konbentzionala eta P.V.C. aluminioa
- Elektrizitatea
- Iturgintza
- Igeltseritza
- Kristaldegia
- Tapizeria
- Pintura oro har

Blas de Lezo K., 19 ● 20110 PASAI ANTZO
Tel.: 52.83.17 ● Faxes: 51.14.90